

# BAIEZTATUA, PRESIOA ONARTEZINA DA!

**Ekintza sindikaleko unitatetik** egindako **inkestaren** datuak aztertu ondoren, emaitza esanguratsuak aurreratu ditzakegu:

Alde batetik, **presioaren pertzepzioa bulegoetan askoz handiagoa da**, jasotako erantzunetatik 5. mailakoak % 50 baino gehiago izanik (1etik 5era bitarteko eskalan) eta 4. eta 5. mailako erantzunak % 90 ingurukoak dira; zentro korporatiboan, berriz, % 22 eta % 57 lortzen dira, hurrenez hurren. Balio horiek ezin dira onartu.

Zereginak egiteko denborari dagokionez, sarean % 83k baino gehiagok adierazi du **lan ordutan inoiz ez dagoela denbora nahikorik**. Zentro korporatiboetan jarrera hori % 51tik gorakoa da.

Presioa oso handia da, eta areagotu egiten da udara sasoian, plantillaren oporrak hasterakoan, sarritan ez dalako ordezkorik jartzen.

Baita ere azpimarratu nahi dugu askotan gertatzen den **xantaia**. Izan ere, sarritan beste langile batek oporrak hartu ahal izateko, bere lankideengan uzten da ardura, jasan dezakeena baino lan gehiago hartuz.

Puntu honetan, hainbeste denboran irakatsi diguten erantzukizunaren kontzeptuari buruzko hausnarketa bat egin nahi dugu.

**Langilearen erantzukizuna** da lanaldi osoa presarik gabe eta beharrezkoak ez diren etenaldiak egin gabe lan egitea, lana arduraz eginez eta barneko eta kanpoko arauetara egokituz. Gainerako guztia ez da gure erantzukizuna:

- Lanaldian edonork egin dezakeena baino lan gehiago ematen badidate, ez da nire ardura.
- Lankideen bajak ordezkatzeko ez badira, ez da nire ardura.
- Falta den lankidearen ordezkariak ez badu beharrezko formazioa ez da nire ardura.
- Taldeko lankideren bat bajan badago, ez da nire ardura.

Proposatu ditugun ekintza batzuek erantzun dituzuenen % 40 eta % 50 arteko babesia dute. Esanguratsua da % 5ek baino gutxiagok adierazi duela ez duela ezer egiteko asmorik. Era berean, eskerrik asko zuen ekarpenengatik. Horregatik, erantzunak jasotzen jarraituko ditugu, eta oso kontuan hartuko ditugu.

Iraila hasi baino lehen, **jakinaraziko dizuegu martxan jarriko ditugun neurri indartsuak**. Horretarako, zuen ezinbesteko laguntza behar izango dugu. Ordura arte, astelehen beltzekin jarraituz eta **inkesta erantzutera** animatzen zaituztegu, orain arte betetzeko aukerarik izan ez dutenentzat zabalik uzten baitugu.

